

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ORIOKO UDALA

Iragarkia

Udal honetako Osoko Bilkurak, 2025eko irailaren 25ean egin-dako ohiko bilkuran, erabaki zuen ordenantza fiskalen eta horien eranskinen aldaketa hasieran onestea, kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren quorumarekin, eta 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Ordenantza fiskal horiek eta horien eranskinak 30 egun balio-duneko epean jarri ziren jendaurrean, 2025eko urriaren 6ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (190 zk.) argitaratutako iragarkiaren bidez. Ángel José Cervantes Martínek aurkeztutako erreklamazio bakarra osorik ezetsi zen, eta Orioko Udalbatzak, 2025eko azaroaren 27an egindako ohiko bilkuran, behin betiko onartu zuen ordenantza fiskalak eta eranskinak aldatzea. Aldaketak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta hasierako onarpenaren erabakiari dagokionez ez da funtsezko aldaketarik egin.

Ordenantza fiskalen eta horien eranskinen aldaketaren tes-tuak honako hau dio:

1. UDAL ZERGAK

Ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuotak finkatze-ko funtsezko elementuak erregulatuko dituen ordenan-tza fiskala.

ERANSKINA

I. Karga tasa.

Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion kar-ga-tasa honako hau da:

— Industri edo hirugarren zonetan kokatuta dauden hiri-on-dasunentzat: ‰ 4,439.

— Gainerako ondasun higiezinentzat: ‰ 2,144.

II. Hobariak.

1. Famili ugarietako hobaria:

Hobariaren ehunekoa aldakorra izango da, azaroaren 18ko 40/2003 Legearen 4. artikuluan ezartzen diren familia ugaria-ren sailkapenaren arabera.

— Familia ugari berezientzat, ‰ 90ko hobaria ezartzen da.

— Familia ugari orokorrentzat, ‰ 50ko hobaria ezartzen da.

Kasu guztietan, hobariaren zenbatekoak 250 euroren muga ezingo du gainditu.

Hobariarekin baliatzeko baldintza formalak:

Familia ugarien titularrek, hiri OHZren subjektu pasiboak, ondoren aipatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko dute, familia ugari titulua iraungi bitartean hobaria aplikatuko delarik, OHZ Foru Arauak aldaketarik izaten ez duen bitartean:

AYUNTAMIENTO DE ORIO

Anuncio

El Pleno de este Ayuntamiento, en sesión ordinaria celebrada el día 25 de septiembre de 2025, acordó aprobar inicialmente, y con el quorum de la mayoría absoluta del número legal de sus miembros, la modificación de las Ordenanzas Fiscales y sus ane-xos, con efectos a partir del 1 de enero del 2026.

Habiéndose sometido la modificación de dichas Ordenan-zas Fiscales y sus anexos al trámite de exposición pública por el plazo de 30 días hábiles mediante anuncio publicado en el Bo-LETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 190 de fecha 6 de octubre de 2025 y habiéndose desestimado en su totalidad la única reclamación presentada por Ángel José Cervantes Martín, el Pleno del Ayun-tamiento de Orio en sesión ordinaria celebrada el día 27 de no-viembre de 2025, aprobó definitivamente la modificación de las Ordenanzas Fiscales y sus anexos, con efectos a partir del 1 de enero del 2026, sin modificación sustancial alguna con respec-to al acuerdo de aprobación inicial.

El texto de la modificación de las Ordenanzas Fiscales y sus anexos, es del siguiente tenor:

1.º IMPUESTOS MUNICIPALES

Ordenanza fiscal reguladora de los elementos esen-ciales para determinar las cuotas del impuesto sobre bienes inmuebles.

ANEXO

I. Tipo de gravamen.

— El tipo de gravamen aplicable al Impuesto sobre Bienes Inmuebles de Naturaleza Urbana es:

— El 4,439 ‰ para los bienes urbanos situados en zonas in-dustriales o terciarias.

— El 2,144 ‰ para el resto de los bienes inmuebles.

II. Bonificaciones.

1. Bonificación a familias numerosas:

El porcentaje de la bonificación será variable en función de la categoría de familia numerosa determinada en el artículo 4 de la Ley 40/2003 de 18 de noviembre.

— Para familias numerosas de categoría especial la bonifica-ción será del 90 ‰.

— Para familias numerosas de categoría general la bonifica-ción será del 50 ‰.

En todos los casos, la bonificación no podrá superar el límite de 250 euros.

Obligaciones formales para alcanzar la bonificación:

— Los sujetos pasivos que sean titulares de familia numero-sa, deberán presentar la documentación que se cita para que hasta que se dé la caducidad del título de familia numerosa se aplique la bonificación de oficio, salvo que se apruebe modifica-ción de Norma Foral reguladora del Impuesto sobre Bienes In-muebles:

— Interesdunaren eskabidea, udalak erraztuko du eredua.

— Familia ugariaren tituluaren fotokopia konpultsatua. Udalak urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean familia unitateko kideak ohizko etxebizitzan errolatuak daudela egiaztatuko du.

Familia ugariaren titullarrak etxebizitza bat baino gehiago jabetzen izan ezker, hoberia ez da aplikatuko.

Hobariaren eskaera indarrean dagoen urteko behin betiko errolda itxi aurretik egin beharko da. Urteko errolda behin betiko izaeraz itxi ondoren aurkezten diren eskaerak ez dira onartuko indarrean dagoen ekitaldirako.

Herritarrek eskaera orrian aurkakotasunik adierazi ez badu, zergabiltzetako langileek datuen arloko bitartekotzako plataformatik eta beste administrazioetatik honako datuok egiaztatuko dituzte:

— Familia ugariaren liburua.

— Ondasun Higiezinak: Hiriguneko etxebizitzaren titularra.

— Ondasun Higiezinak: Udallerrikan kanpoko etxebizitzak.

Beti ere, alde aurretik baldintza hauek bete behar direlarik:

— Familia ugariaren ohiko etxebizitza izan behar du eta bertan erroldatuta egon behar dute.

— Familia ugariaren inork ezin du izan beste edozein ondasun higiezinaren jabe.

2. Energia aprobetxamendu sistemak.

Uztailaren 5eko 12/1989 foru arauak 15. artikulua araber, eta ondoren OHZri buruzko apirilaren 15eko 3/2021 Foru Arauaren bidez egindako aldaketaren arabera, hobari hauek aplikatuko dira:

Energia berriztagarrien bidezko aprobetxamendu termiko edo elektrikoko sistemak dituzten ondasun higiezinak % 40ko hoberia izango dute Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuantan.

Instalazio horiek Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregulamendua (EITE) bete beharko dute.

Eraikina Eraikuntzaren Kode Teknikoaren eta Energia Arrazteko Araudiaren (CTE-DB-HE) arabera egin bada, ez da hoberia hau aplikatuko.

Hoberia lortu ahal izateko, interesdunek eskaera bat aurkeztu beharko dute, eta horrekin batera: goian aipatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak.

Hoberia behin bakarrik aplikatuko da, hau da, eskaera egiten den urtean.

Halaber, hobariak aplikatzeko nahitaezkoa izango da Udaleko zergaren ordainketan egunean egotea. Baldintza hori nahitaezkoa da hoberia emateko, eta ez bada betetzen, galdu egingo da eskubidea.

III. Errekarguak.

Ondasun higiezinak etxebizitza erabilera dutenean, eta subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez direnean –hirugarrenen kasuan errentamenduz edo lagapen bidez–, Orioko Udalak % 100eko errekarua eskatuko du zergaren kuota likidoaren gainean. Errekargua zerga honen subjektu pasiboari exijituko zaie; zergaren une berean sortuko da, eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

Errekargu hau aplikatzearen ondorioetarako, Katastroaren arabera etxebizitza gisa erabiltzekoak diren lokalak ere etxebizitza erabilera duten ondasun higiezinak hartuko dira. Etxebizitza

— Solicitud del interesado, según modelo facilitado por el Ayuntamiento.

— Fotocopia compulsada del título de familia numerosa. El Ayuntamiento comprobará que los miembros de la unidad familiar se encuentren empadronados en la vivienda habitual el día 1 de enero de cada año.

En aquellos casos en que los titulares de familia numerosa sean titulares de más de una vivienda en propiedad, la bonificación no será aplicable.

La petición de bonificación deberá ser realizada antes del cierre definitivo del padrón en el año corriente. Una vez que el padrón sea cerrado con carácter definitivo, las peticiones realizadas con posterioridad no surtirán efecto para el ejercicio corriente.

Si el ciudadano no se opone a la solicitud, el personal de recaudación comprobará desde la plataforma de intermediación de datos y desde otras administraciones los siguientes datos:

— Libro de familia numerosa.

— Bienes Inmuebles: Titular de las viviendas.

— Bienes Inmuebles: Viviendas fuera del municipio.

Siempre y cuando cumplan previamente las siguientes condiciones:

— Debe tratarse de la vivienda habitual de la familia numerosa y sus miembros deben de estar empadronados en la misma.

— Ningún miembro de la unidad familiar debe ser propietario de cualquier otro bien inmueble distinto de la vivienda habitual.

2. Sistemas de aprovechamiento de energías.

En virtud del artículo 15 de la Norma Foral 12/1989 del 5 de julio y su posterior modificación por la Norma Foral 3/2021, de 15 de abril, del IBI se aplicarán las siguientes bonificaciones:

Tendrán una bonificación del 40 % en la cuota del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, los bienes inmuebles que dispongan de sistemas de aprovechamiento térmico o eléctrico de fuentes de energía renovables.

Estas instalaciones deberán cumplir el Reglamento de Instalaciones Térmicas en Edificios (RITE).

En el caso de que el edificio se haya ejecutado de acuerdo con el Código Técnico de la Edificación y la normativa de Ahorro Energético (CTE-DB-HE), no será de aplicación esta bonificación.

Para poder optar a la bonificación, los interesados deben presentar una solicitud, a la que se adjuntará la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos anteriormente mencionados.

Esta bonificación se aplicará una sola vez, esto es, en el año de la solicitud.

Asimismo, para la aplicación de estas bonificaciones será obligatorio estar al corriente en el pago de los impuestos del Ayuntamiento. Este requisito es imprescindible para la concesión de la bonificación, y si no se cumple, se perderá el derecho.

III. Recargos.

Tratándose de bienes inmuebles de uso residencial que no constituyan la residencia habitual del sujeto pasivo o de terceros por arrendamiento o cesión de su uso, el Ayuntamiento de Orio exigirá un recargo del 100 % de la cuota líquida del Impuesto. Dicho recargo, que se exigirá a los sujetos pasivos de este tributo, se devengará en el mismo momento que el impuesto sobre el que se aplica y se liquidará anualmente, conjuntamente con la cuota.

A efectos de la aplicación del presente recargo, se entenderá por inmuebles de uso residencial los locales que estén recogidos como de uso o destino de vivienda en el Catastro. Se in-

tzaren eranskinak ere sartuko dira, erregistroan finka bakar gisa ageri badira. Ondorio horietarako ere, presuntzioa egingo da etxebizitza erabilerako ondasun higiezin bat ohiko egoitza dela baldin eta, zergaren sortzapen egunean, hura kokaturik dagoen udalerriko erroldan egiaztatua badago bertan bizi den/direnen ohiko bizilekua dela.

Errekarguaren salbuespenak:

1. Zergan hobariren bat dutenak.
2. Udaleko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren matrikulan alta emandako jarduerekin lotutakoak.
3. Zergaren sortzapenaren aurreko urtean 9 hilabete baino gehiagoz alokatuta egon diren etxebizitzak (alokatuta bakarrik; ez dira sartzen erabilerak-lagapenak) edota Bizigune programan izena emana dutenak. Honako dokumentazioa aurkeztu beharko da, salbuespena aplikatzeko:
 - Salbuespena aplikatzeko eskaria.
 - Alokairu-kontratua, behar bezala datatu eta sinatuta. Kontratu horretan agertu behar du higiezinak etxebizitza-xedea edo erabilerak izango duela.
 - Alokairua kobratu izana justifikatzen duten agiriak, zergaren sortzapenaren aurreko urteari dagozkionak.
- Gipuzkoako Foru Ogasunari alokairu-kontratu horien berri emango zaio.
4. Zahar egoitzatan erroldatutako pertsonen titularitatepeko etxebizitzak. Salbuespen hau aplikatuko zaio, bakar-bakarrik egoitzan sartu aurretik pertsona horren ohiko etxebizitza zenari.
5. Herentzia baten parte diren etxebizitzak, titularra hil eta bi urteko epean.
6. Zerga sortu den urtearen aurreko urteko azaroan edo abenduan eskuratutako etxebizitzak, urtarilaren 1ean inor erroldaturik ez badago, baina erroldatze tramitea zerga sortu den urteko lehen hiruhilekoan egin bada.
7. Legez aurri-egoeran deklaraturako eraikinetan kokaturako etxebizitzak.
8. Hiri katastroaren erregistroan bi finka independente osatzen dituzten etxebizitzak, baina etxebizitza bakar modura erabiltzen direnak. Zirkunstantzia horien balorazioko txostena udal zerbitzu tekniko eskudunek egingo dute.
9. Lurzoru urbanizaezinean eta lurzoru urbanizagarrian kokaturako etxebizitzak.
10. Urbanistikoki antolamenduz kanpokotzat kalifikaturako eraikinetan dauden etxebizitzak.
11. Ohiko etxe bizitza ez diren etxe bizitzak, baldin eta gutxienez 1.300 kWh elektrizitate edo 2.000 kWh gas natural edo 30 m³ko gutxieneko ur kontsumoa egin dela egiaztatzen badu zerga-sortza penaren aurreko urtean.
- Zergaren sortzapenaren aurreko urtean izandako elektrizitate edo gas kontsumoen fakturak aurkeztuta frogatuko da zirkunstantzia hori.
12. Zaintza pertsonalak behar dituzten mendeko pertsonen jabetzako etxebizitzak, baldin mendeko pertsona hori bera zaintzeaz arduratzen den familiarraren etxean bizi eta erroldatuta badago. Zaintza pertsonalen beharra mendekotasun-balorazio bidez frogatuko da. Salbuespen hau aplikatzeko beharrezkoa izango da utzi den etxebizitza hori mendeko pertsonaren ohiko etxebizitza izatea, familiarraren etxebizitzara joan aurretik.
- Landalur Ogasun higiezinaren gaineko zergari aplikagarri zaion karga tasa % 1,10ekoa da.

cluirán los anexos a la vivienda siempre que formen una finca registral única. A los mismos efectos, se presumirá que un inmueble de uso residencial es residencia habitual cuando a fecha de devengo del impuesto, en el padrón del municipio donde radique la vivienda conste que constituye la residencia habitual de su o sus ocupantes.

Exenciones al recargo:

1. Los que gocen de alguna bonificación tributaria en el impuesto.
2. Los afectos a actividades dados de alta en la matrícula del Impuesto sobre Actividades Económicas del Ayuntamiento.
3. Las viviendas que han estado arrendadas (únicamente las arrendadas, no se incluyen las cesiones de uso) más de 9 meses en el año anterior al del devengo del impuesto, así como las viviendas inscritas en el programa Bizigune. Se deberá presentar la siguiente documentación para su aplicación:
 - Solicitud de aplicación de la exención.
 - Contrato de alquiler debidamente fechado y firmado. En dicho contrato deberá constar que el inmueble tendrá como destino o uso el de vivienda.
 - Justificantes bancarios de cobro de las rentas del año anterior al del devengo del impuesto.
- Se dará conocimiento de dichos contratos de alquiler a la Hacienda Foral de Gipuzkoa.
4. Las viviendas cuya titularidad corresponda a personas empadronadas en Residencias de la Tercera Edad. Esta exención se aplicará únicamente a la vivienda que, con carácter previo al ingreso en la Residencia, tuviera la condición de vivienda habitual del residente.
5. Las viviendas que formen parte de una herencia, durante el período de 2 años desde el fallecimiento de su titular.
6. Las viviendas adquiridas en noviembre o diciembre del año anterior al año de devengo del impuesto, que a 1 de enero no figure nadie empadronado, pero que el trámite de empadronamiento se ha realizado en el primer trimestre del año de devengo del impuesto.
7. Las viviendas situadas en edificios formalmente declarados en situación legal de ruina.
8. Las viviendas que formen dos fincas registrales independientes en el Catastro urbano pero que son utilizadas como una vivienda única. El informe de valoración de dicha circunstancia se realizará por los servicios técnicos municipales competentes.
9. Las viviendas ubicadas tanto en suelo no urbanizable como en suelo urbanizable.
10. Las viviendas ubicadas en edificios calificados urbanísticamente como fuera de ordenación.
11. Las viviendas que no constituyan vivienda habitual, siempre que acredite haber consumido al menos 1.300 kWh de electricidad o 2.000 kWh de gas natural o un volumen mínimo de agua de 30 m³ en el año anterior al devengo del impuesto.
- Esta circunstancia se acreditará mediante la presentación de las facturas con consumos eléctricos o de gas del año inmediatamente anterior a la fecha de devengo del impuesto.
12. Las viviendas cuya titularidad corresponda a personas que, por necesidades de cuidado personal acreditado mediante valoración de dependencia, convivan y estén empadronadas en la vivienda de algún familiar responsable de dicho cuidado. Esta exención se aplicará únicamente a la vivienda que, con carácter previo al traslado a la vivienda familiar, tuviera la condición de vivienda habitual de la persona dependiente.
- El tipo de gravamen aplicable al Impuesto sobre Bienes Inmuebles de Naturaleza Rústica es de 1,10 %.

Udalerriko jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren exakzioarako zenbait ahalmen erregulatzen dituen ordenantza fiskala.

ERANSKINA

Finkatutako gutxieneko kuoten gehikuntzaren koefiziente bakarra: 1,93.

Indarrean dauden eta gaiari dagozkion foru-arauetan ezarritako hobariak aplikatuko dira.

Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. *Ezarri beharreko araudia.*

Udal honek hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga ezarri eta eskatu du, indarreko ordenantzaren arabera eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Hazienda Lokalak erregulatzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan eta zerga honi bereziki dagokion 7/2021 Foru Dekretu-Araua, azaroaren 16koa, Hirilurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Araua Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara egokitzekoarekin bat etorrira.

2. artikulua. *Lurralde-eremua.*

Ordenantza Orioko udalerrira osoan aplikatzen da.

II. EGITATE ZERGAGARRIA

3. artikulua. *Zergapeko egintza.*

1. Hirilurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga zuzeneko zerga da. Horrekin hiri izaerako lursailen batek izan dezakeen balio gehikuntza kargatzen da, lursailaren jabetza edozein tituluren bidez transmititzen denean edo haren gainean jabaria mugatzen duen edozein gozamen eskubide erreal eratzen edo transmititzen denean, gehikuntza hori ageri jartzen bada.

2. Ondorio horietarako, honako hauek hartuko dira hiri-lurtzat:

a) Hirigintza arloko plangintzak hirikotzat, urbanizatutzat edo horien baliokidetzat sailkatzen edo definitzen dituenak.

b) Lurzoru urbanizagarritzat jotzen diren lursailak, edo lurralde eta hirigintza arloko antolamendurako tresnek lurzoru urbanizatuaren egoeran sartzea aurreikusi edo horretarako aukera eman dutenak, betiere sektore edo eremu espazial mugatuetan sartuta badaude. Aurrekoez gain, horrelako izaera duten gaineko lurzoruak barne hartzen ditu, horiek garatzeko zehaztapenak ezartzen dituen hirigintza arloko tresna onartzen den unetik aurrera.

c) Nekazaritza-legerian xedatutakoaren aurka zatikatzen diren lurrak, betiere zatikatze horrek nekazaritza-erabilera indargabetzen badu, eta horrek ez badu landa-izaera aldatzen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergakoak ez diren beste ondorio batzuetarako.

III. ZERGARI EZ LOTUAK

4. artikulua. *Zergari lotuta ez daudenak.*

Ez dira zerga honi lotuko:

1. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako nekazal izaerako lurrek jasaten duten balio gehikuntza. Ondorioz, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako, hiri izaera eduki behar duten lurrek jasan dezaketen balio gehikun-

Ordenantza fiskal reguladora de determinadas facultades para la exacción del impuesto sobre actividades económicas en el municipio.

ANEXO

Coefficiente único de incremento de las cuotas mínimas fijadas: 1,93.

Se aplicarán las bonificaciones establecidas en la normativa foral vigente aplicable por razón de la materia.

Ordenanza fiscal reguladora del impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana.

I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. *Normativa aplicable.*

Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral 11/1989 de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en el Decreto Foral-Norma 7/2021, de 16 de noviembre, de adaptación de la Norma Foral 16/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana a la jurisprudencia del Tribunal Constitucional, establece y exige el citado impuesto, con arreglo a la presente ordenanza.

Artículo 2. *Ámbito territorial.*

La Ordenanza se aplica en todo el término municipal de Orio.

II. HECHO IMPONIBLE

Artículo 3. *Hecho imponible.*

1. El impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana es un tributo directo que grava el incremento del valor que experimenten dichos terrenos y se ponga de manifiesto a consecuencia de la transmisión de la propiedad de los mismos por cualquier título, o de la constitución o transmisión de cualquier derecho real de goce, limitativo del dominio, sobre los referidos terrenos.

2. A estos efectos, tendrán la consideración de terrenos de naturaleza urbana:

a) El clasificado o definido por el planeamiento urbanístico como urbano, urbanizado o equivalente.

b) Los terrenos que tengan la consideración de urbanizables o aquéllos para los que los instrumentos de ordenación territorial y urbanística prevean o permitan su paso a la situación de suelo urbanizado, siempre que estén incluidos en sectores o ámbitos espaciales delimitados, así como los demás suelos de este tipo a partir del momento de aprobación del instrumento urbanístico que establezca las determinaciones para su desarrollo.

c) Los terrenos que se fraccionen en contra de lo dispuesto en la legislación agraria, siempre que tal fraccionamiento desvirtúe su uso agrario, y sin que ello represente alteración alguna de la naturaleza rústica de los mismos a otros efectos que no sean los del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

III. NO SUJECCIÓN

Artículo 4. *No sujeción.*

No se producirá la sujeción a este impuesto:

1. El incremento de valor que experimenten los terrenos que tengan la consideración de rústicos a efectos del Impuesto sobre Bienes Inmuebles. En consecuencia, está sujeto el incremento de valor que experimenten los terrenos que deban tener

tza zergari lotuta dago, ondasun higiezinaren katastroan edo erroldan hiri izaerako ondasuntzat jasota egon ala ez.

2. Ezkontideek ezkon sozietateari ondasun eta eskubi-deen ekarpenak egiten dizkiotenean, edota beren alde egindako esleipenetan eta horien ordainetan –betiere egiaztatzen badira–, hala nola ezkontideei beren ondasun komunaren ordainetan egindako transmisioetan.

Xedapen bera aplikatuko da, aurreko paragrafoan aipatutako kasuetan, izatezko Bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako izatezko bikoteko kideek egiten dituzten ekarpen, esleipen eta eskualdaketei dagokienez.

Maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako izatezko bikoteko kideen artean edo seme-alaben alde ezkontideen artean ondasun higiezinak eskualdatzen direnean ere ez da zergari atxikiko, deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-kausetan edo izatezko bikotearen azkentean epaiak betetzearen ondorioz, edozein dela ere ezkontzaren araubide ekonomikoa edo ondarearen araubide ekonomikoa, hurrenez hurren.

3. Lurren eskualdaketa ez dira egongo zergari lotuta eskualdaketa eta eskurapen datetan haien balioen artean dagoen diferentzia kalkulatzeko balio gehikuntzarik ez dela izan egiaztatzen denean.

Horretarako, balio gehikuntzarik ez dela izan frogatu nahi duen pertsona edo entitate interesdunak eskualdaketa aitortu beharko du, eta eskualdaketa eta eskurapena dokumentatzen dituzten titulak aurkeztu ere bai; ondorio horietarako, ordenantza honen 6. artikuluan aipatzen diren pertsonak edo entitateak izango dira interesdun.

Eskualdaketa balio gehikuntzarik ez dela izan egiaztatze-ko, honako hau hartuko da lurraren eskualdaketa edo eskurapen baliozkat kasu bakoitzean: eragiketa dokumentatzen duen tituluan ageri dena edo, kasua bada, Zerga Administrazioak egiaztatutakoa. Ondorio horietarako, eragiketa horietan izandako gastuak edo aplikatutako tributuak ezingo dira konputatu, eta ez da inolako eguneratzerik izango denbora igarotzeagatik.

Higiezinaren eskualdaketa lurzorua eta eraikuntza sartzen direnean, lurzoruaren baliozkat hartuko da zergaren sortzapen egunean lurraren katastro balioak katastro balio osoarekiko duen proportzioa aplikatuta ateratzen dena, eta proportzio hori aplikatuko zaie bai eskualdaketa balioari eta, hala badagokio, baita eskurapen balioari ere eta bi hamartarrez adierazi beharko da.

Eskurapena edo eskualdaketa kostu gabekoa izan bada, aurreko paragrafoetako erregelak izango dira aplikagarriak, eta hala dagokionean, gorago aipatutako bi balio konparagarrietatik lehenengotzat oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan aitortutakoa hartuko da.

Apartatu honetan aipatutako higiezinaren ondorengo eskualdaketa, lurren balio gehikuntza zenbat urtetan sortu den konputatzeko, higiezina eskuratu aurreko denbora ez da kontuan hartuko. Ondasun higiezinaren ekarpen edo eskualdaketei ez zaie aplikatuko paragrafo honetan xedatutakoa, artikulua honen 2 eta 4 apartatuen arabera zergari lotuta ez daudenean.

4. Hiri izaerako lurrek jasan dezaketen balio gehikuntza, Sozietateen gaineko Zerga arautzen duen 2/2014 Foru Arauko VI. tituluko VII. kapituluaren arautzen den erregimen berezia aplikatzen diren operazioen ondoriozko transmisioak egiten direnean. Nolanahi ere, zerga honetatik salbuetsita daude aipatu foru arauko 111. artikuluan aurreikusitakoaren babesean ekarpen diren lurrei dagokiena.

la consideración de urbanos, a efectos de dicho Impuesto sobre Bienes Inmuebles, con independencia de que estén o no contemplados como tales en el catastro o en el Padrón de aquel.

2. En los supuestos de aportaciones de bienes y derechos realizadas por los cónyuges a la sociedad conyugal, adjudicaciones que a su favor y en pago de ellas se verifiquen y transmisiones que se hagan a los cónyuges en pago de sus haberes comunes.

Igual disposición se aplicará, en los mismos supuestos a que se refiere el párrafo anterior, respecto de las aportaciones, adjudicaciones y transmisiones que efectúen los miembros de la pareja de hecho constituida con arreglo a lo dispuesto en la Ley 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las parejas de hecho.

Tampoco se producirá la sujeción al Impuesto en los supuestos de transmisiones de bienes inmuebles entre cónyuges, entre miembros de la pareja de hecho constituida con arreglo a lo dispuesto en la Ley 2/2003, de 7 de mayo, o a favor de los hijos, como consecuencia del cumplimiento de sentencias en los casos de nulidad, separación o divorcio matrimonial o extinción de la pareja de hecho, sea cual sea el régimen económico matrimonial o el régimen económico patrimonial, respectivamente.

3. No se producirá la sujeción al impuesto en las transmisiones de terrenos respecto de los cuales se constata la inexistencia de incremento de valor por diferencia entre los valores de dichos terrenos en las fechas de transmisión y adquisición.

Para ello, la persona o entidad interesada en acreditar la inexistencia de incremento de valor deberá declarar la transmisión, así como aportar los títulos que documenten la transmisión y la adquisición, entendiéndose por personas o entidades interesadas, a estos efectos, las personas o entidades a que se refiere el artículo 6 de esta ordenanza.

Para constatar la inexistencia de incremento de valor, como valor de transmisión o de adquisición del terreno se tomará en cada caso el mayor de los siguientes valores, sin que a estos efectos puedan computarse los gastos o tributos que graven dichas operaciones, ni efectuarse ninguna actualización por el transcurso del tiempo: el que conste en el título que documente la operación o el comprobado, en su caso, por la Administración tributaria.

Cuando se trate de la transmisión de un inmueble en el que haya suelo y construcción, se tomará como valor del suelo a estos efectos el que resulte de aplicar la proporción que presente en la fecha de devengo del impuesto el valor catastral del terreno respecto del valor catastral total y esta proporción se aplicará tanto al valor de transmisión como, en su caso, al de adquisición. Esta proporción se expresará con dos decimales.

Si la adquisición o la transmisión hubiera sido a título lucrativo se aplicarán las reglas establecidas en los párrafos anteriores tomando, en su caso, por el primero de los dos valores a comparar señalados anteriormente, el declarado en el impuesto sobre sucesiones y donaciones.

En la posterior transmisión de los inmuebles a los que se refiere este apartado, para el cómputo del número de años a lo largo de los cuales se ha puesto de manifiesto el incremento de valor de los terrenos, no se tendrá en cuenta el período anterior a su adquisición. Lo dispuesto en este párrafo no será de aplicación en los supuestos de aportaciones o transmisiones de bienes inmuebles que resulten no sujetas en virtud de lo dispuesto en los apartados 2 y 4 de este artículo.

4. El incremento de valor que experimenten los terrenos de naturaleza urbana con ocasión de las transmisiones derivadas de operaciones a las que resulte aplicable el régimen especial regulado en el capítulo VII del título VI de la Norma Foral 2/2014, del Impuesto sobre Sociedades, a excepción de las relativas a terrenos que se aporten al amparo de lo previsto en el artículo 111 de la citada Norma Foral, cuando no se hallen integrados en una rama de actividad.

IV. SALBUESPENAK

5. artikulua. *Salbuespenak.*

1. Zerga hau ordaintzetik salbuetsita daude honako jarduerengatik adierazten diren balio gehikuntzak:

- a) Zortasun eskubideak eratzea eta transmititzea.
- b) Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauko 4.2.e) artikuluan aurreikusten den salbuespenaren aplikazioa dagokien ondasunen transmisioak, horien jabeek edo eskubide errealek titularrek egiaztatzen badute beraien kargura kontserbatze, hobetze eta birgaitze obrak egin dituztela. Ondorio horietarako, Ordenantza Fiskalak salbuespenaren alderdi substantiboak eta formalak ezarriko ditu.

Salbuespen honen eraginkortasuna honako betebeharrera lotuta dago: egin diren kontserbatze, hobetze eta birgaitze obrak udal lizentzia lortu beharri lotutakoak izatea. Premiazkoa izango da, halaber, aipatu obrak ondasuna inorenganatu aurreko bi urteetan egindakoak izatea.

Aurrean araututakoaren ondorioetarako, kontserbatze, hobetze eta birgaitze obratzat joko dira eraikuntza sendotzeko egindakoak edo egitura, fatxada edo estalkiak sendotzeko egindakoak eta antzekoak, baldin eta obraren kostu osoak katastro baliorearen % 75 gainditzen badu.

2. Zerga hau ordaintzetik salbuetsita daude, berebat, balio gehikuntzaren zerga ordaindu behar dutenak honako pertsona eta entitateak badira:

- a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Gipuzkoako Foru Aldundia, hala nola lurraldeetako herri administrazioako organismo autonomoak eta antzeko jitea duten eskubide publikoko erakundeak.
- b) Orioko Udalak eta gainontzeko udal erakundeak, hala nola organismo autonomoak eta antzeko jitea duten eskubide publikoko erakundeak.
- c) Onegintza edo irakaskuntzako onegintza izaera duten entitateak.
- d) Gizarte Segurantzaren indarrean dagoen legeriaren arabera eratutako gizarte aurrezaintzako Mutualitateak.
- e) Itzuli beharreko kontzesio administratiboen titularrek, kontzesioak ukitzen dituen lurri dagokienez.
- f) Gurutze Gorria eta antzeko entitateak, arauz hala erabakitzen denean.
- g) Nazioarteko itun edo hitzarmenetan salbuespena onartu zaien pertsona edo entitateak.
- h) Irabazi-asmorik gabeko erakunde batek zerga hori ordaintzeko legezko betebeharra duenean, irabazi-asmorik gabeko erakundeek zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurra eskualdatzen badira edo horien gaineko jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealek eratzen badira eta irabazi-asmorik gabeko erakunde batek kostu bidez egiten baditu, zerga horren salbuespena egiteko, lursail horiek Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren salbuespena aplikatzeko ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Era berean, salbuespen hori aplikatzeko, irabazi-asmorik gabeko erakundeek apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauaren 16. artikuluan 1. paragrafoan araututako aukera baliatu dutela Uda-

IV. EXENCIONES

Artículo 5. Exenciones.

1. Estarán exentos de este Impuesto los incrementos de valor que se manifiesten como consecuencia de los siguientes actos:

- a) La constitución y transmisión de derechos de servidumbre.
- b) Las transmisiones de bienes a los que resulte la aplicación de la exención prevista en el artículo 4.2.e) de la Norma Foral 12/1989 de 5 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, cuando sus propietarios o titulares de derechos reales acrediten que han realizado a su cargo obras de conservación, mejora o rehabilitación en dichos inmuebles. A estos efectos, la Ordenanza Fiscal establecerá los aspectos sustantivos y formales de la exención.

La efectividad de esta exención queda condicionada a que las obras de conservación, mejora o rehabilitación hubieran quedado efectivamente sujetas a licencia municipal. Asimismo, será preciso que las mencionadas obras se hubieran efectuado durante los dos años inmediatamente anteriores a la enajenación.

A estos efectos, se entenderá por obras de conservación, mejora o rehabilitación las que tienen por objeto la reconstrucción de edificaciones mediante la consolidación y el tratamiento de las estructuras, fachadas o cubiertas y otras análogas siempre que el coste global de estas obras exceda del 75 % del valor catastral.

2. Asimismo, estarán exentos de este impuesto los correspondientes incrementos de valor cuando la obligación de satisfacer aquél recaiga sobre las siguientes personas o entidades:

- a) El Estado, la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Diputación Foral de Gipuzkoa así como los organismos autónomos y entidades de derecho público de análogo carácter de las citadas Administraciones Públicas territoriales.
- b) El Ayuntamiento de Orio y demás entidades locales municipales así como los organismos autónomos y entidades de derecho público de análogo carácter.
- c) Las instituciones que tengan la condición de benéficas o de benéfico-docentes.
- d) Las entidades gestoras de la Seguridad Social y las Mutualidades de previsión social constituidas conforme a lo previsto en la legislación vigente.
- e) Los titulares de concesiones administrativas revertibles respecto de los terrenos afectos a las mismas.
- f) La Cruz Roja y otras entidades asimilables que reglamentariamente se determinen.
- g) Las personas o entidades a cuyo favor se haya reconocido la exención en Tratados o Convenios Internacionales.
- h) Los supuestos en los que la obligación legal de satisfacer dicho Impuesto recaiga sobre una entidad sin fines lucrativos, de conformidad con lo dispuesto en los apartados 3 y 4 del artículo 17 de la Norma Foral Entidades sin fines lucrativos definidas en el artículo 4 de la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de Régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

En el supuesto de transmisiones de terrenos o de constitución de derechos reales de goce limitativos de dominio sobre los mismos, efectuadas a título oneroso por una entidad sin fines lucrativos, la exención en el referido impuesto estará condicionada a que tales terrenos cumplan los requisitos establecidos para aplicar la exención en el Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

Asimismo, la aplicación de esta exención estará condicionada a que las entidades sin fines lucrativos comuniquen al Ayuntamiento el ejercicio de la opción regulado en el apartado 1 del

lari jakinaraztea eta Foru Arau horren II. tituluan jasotako zerga-araubide bereziari buruzko baldintza eta balizkoak betetzea ezinbestekoa izango da.

V. SUBJEKTU PASIBOAK

6. artikulua. Subjektu pasiboa.

1. Zergadun gisa, honako hauek dira zergaren subjektu pasiboak:

a) Lursailen eskualdaketetan edo irabazpidezko jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealean eraketan edo eskualdaketan, lursaila eskuratzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa, edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 35. artikulua-ren 3. paragrafoan aipatzen den erakundeak, edo testamentu-ahalmenaren bidezko gozamena gauzatu gabeko jaraunspenak edo dagokion eskubide erreala eratu edo eskualdatzen zaion pertsona.

b) Lurren eskualdaketetan edo kostu bidez jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealean eraketan edo eskualdaketan, lursaila eskuratzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa, edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 35. artikulua-ren 3. paragrafoan aipatzen den erakundeak, edo testamentu-ahalmenaren bidezko gozamena gauzatu gabeko jaraunspenak edo dagokion eskubide erreala eratu edo eskualdatzen zaion pertsona.

2. Aurreko paragrafoko b) letran aipatzen diren kasuetan, zergadunaren ordezkari subjektu pasibotzat hartuko da zergaduna Espainian bizi ez den pertsona fisikoa edo juridikoa denean, edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 35. artikulua-ren 3. paragrafoan aipatzen den erakundeak, edo testamentu-ahalmenaren bidezko gozamena gauzatu gabeko jaraunspenak, baldin eta lursaila eskuratzen badu edo eskubide erreala eratu edo eskualdatzen bazaio, zergaduna Espainian bizi ez den pertsona fisiko bat denean, edo Espainian egoiliar ez den entitate bat denean, baldin eta zergadunaren ordezkari solidarioa izendatzen ez bada, eta zergadunaren ordezkaria ez bada.

3. Ohiko etxebizitzaren hipoteka-exekuzioaren ondorioz lursailak eskualdatzen direnean, zergadunaren ordezkari subjektu pasibotzat hartuko da lurra eskuratzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa, edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 35. artikulua-ren 3. paragrafoan aipatzen den erakundeak.

Aurreko lerrokan aurreikusitako kasuetan, ordezkariak ezin- go dio zergadunari eskatu ordaindutako zerga-betebeharraren zenbatekoa.

Paragrafo honetan aurreikusitako ondorioetarako, ohiko etxebizitzat hartuko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 3/2014 Foru Arauaren 87. artikuluan halakotzat definitutakoa.

4. Baliabiderik gabeko hipoteka-zordunak babesteko premia- zko neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua-ren aplikazio-eremuaren barruan dau- den zordunek egindako eskualdaketetan, arau horren eranski- naren 3. paragrafoan aurreikusitako etxebizitza ordainean ema- tearen ondorioz, zergadunaren ordezkari subjektu pasibotzat har- tuko da higiezin eskuratzen duen erakundeak, eta ordezkariak ezin izango dio zergadunari ordaindu beharreko betebeharren zenbatekoa eskatu.

VI. OINARRI ZERGAGARRIA

7. artikulua. Zerga-oinarria zehaztea.

1. Zerga honen oinarria sortzapenaren unean agerian jar- ritako eta gehienez ere 20 urteko epean hiri-lurrek izandako balioaren benetako gehikuntza izango da. Hurrengo 2. paragra- foan xedatutakoa baztertu gabe, hura zehazteko, sortzapenaren

artículo 16 de la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, y cumpla los requisitos supuestos relativos al régimen fiscal especial re- cogido en el Título II de dicha Norma Foral.

V. SUJETOS PASIVOS

Artículo 6. Sujeto pasivo.

1. Es sujeto pasivo del Impuesto a título de contribuyente:

a) En las transmisiones de terrenos o en la constitución o transmisión de derechos reales de goce limitativos del dominio a título lucrativo, la persona física o jurídica, o la entidad a que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria, así como la herencia que se halle pendiente del ejercicio de un poder testatorio, que adquiera el terreno o la per- sona a cuyo favor se constituya o transmita el derecho real de que se trate.

b) En las transmisiones de terrenos o en la constitución o transmisión de derechos reales de goce limitativos del dominio a título oneroso, la persona física o jurídica, o la entidad a que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria, así como la herencia que se halle pendiente del ejercicio de un poder testatorio, que transmita el terreno o la per- sona que constituya o transmita el derecho real de que se trate.

2. En los supuestos a que se refiere la letra b) del apartado anterior, tendrá la consideración de sujeto pasivo sustituto del contribuyente, la persona física o jurídica, o la entidad a que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria, así como la herencia que se halle pendiente del ejer- cicio de un poder testatorio, que adquiera el terreno o a cuyo favor se constituya o transmita el derecho real de que se trate, cuando el contribuyente sea una persona física no residente en España o una entidad no residente en España que no esté obli- gada a nombrar representante, o estándolo, el representante no responda solidariamente de la obligación de ingreso de la deuda tributaria de su representando por este Impuesto.

3. En las transmisiones de terrenos como consecuencia de la ejecución hipotecaria de la vivienda habitual, tendrá la consideración de sujeto pasivo sustituto del contribuyente la persona física o jurídica, o la entidad a la que se refiere el apar- tado 3 del artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria, que adquiera el terreno.

En los supuestos previstos en el párrafo anterior, el sustituto no podrá exigir del contribuyente el importe de la obligación tri- butaria satisfecha.

A los efectos previstos en este apartado, se entenderá por vivienda habitual la definida como tal en el artículo 87 de la Norma Foral 3/2014, del Impuesto sobre la Renta de las Perso- nas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

4. En las transmisiones realizadas por los deudores com- prendidos en el ámbito de aplicación del artículo 2 del Real De- creto-ley 6/2012, de 9 de marzo, de medidas urgentes de pro- tección de deudores hipotecarios sin recursos, con ocasión de la dación en pago de su vivienda prevista en el apartado 3 del anexo de dicha norma, tendrá la consideración de sujeto pasivo sustituto del contribuyente la entidad que adquiera el inmueble, sin que el sustituto pueda exigir del contribuyente el importe de las obligaciones tributarias satisfechas.

VI. BASE IMPONIBLE

Artículo 7. Determinación de la base imponible.

1. La base imponible de este impuesto estará constituida por el incremento real del valor de los terrenos de naturaleza ur- bana puesto de manifiesto en el momento del devengo y expe- rimentado a lo largo de un período máximo de 20 años, y se de-

uneko lurraren balioa l. eranskinean ezarritako koefizientearekin biderkatuko da, ordenantza honen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatuta.

2. Subjektu pasiboak eskatuta, ordenantza honetako 4.3 artikuluko prozeduraren arabera, balio-gehikuntzaren zenbatekoa aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera zehaztutako zerga-oinarriaren zenbatekoa baino txikiagoa dela egiaztatzen denean, balio-gehikuntzaren zenbatekoa hartuko da zerga-oinarritzat.

8. artikulua. Lurraren balioa.

Lurraz sortzapenaren unean duen balioa arau hauetan ezarritakoaren arabera izango da:

1. Lursailen eskualdaketa, sortzapenaren unean duten balioa Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarako finkatutakoa izango da.

Hala ere, aipatutako balio hori balio-ponentzia baten ondorio denean eta hura onartu ondoren, planeamenduan aldaketarik jaso ez bada, zerga hori, behin-behinean, txosten horren arabera likidatu ahal izango da. Horrelakoetan, behin betiko likidazioan lurren balioa aplikatuko da, sortzapen-datari dagokionez izapidetzen diren balorazio-prozeduren arabera lortu ondoren.

Lurzoruak, hiri-izaera izan arren, zergaren sortzapenean katastroko balio jakinik ez badu, udalak likidazioa egin ahal izango du katastroko balio hori zehaztua denean. Gainera, balio hori sortzapen-uneari egokituta egongo da.

Udalek gehienez ere 100eko 15eko koefiziente murriztaile bat ezarri ahal izango dute ordenantza fiskalean, aurreko paragrafoetan adierazitako balioaren gainean, balioaren eguneratze maila haztatzeko.

2. Jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealean eraketan eta eskualdaketa, l. eranskinean jasotako koefizienteak ezarriko zaizkio aurreko paragrafoan definitutako balioaren zatiari; zati horretan islatuta dago, hain zuzen, eskubide horien balioa, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren ondorioetarako finkatutako arauak jarraiki kalkulaturakoa.

Ondorio horietarako, arau hauek bete beharko dira:

a) Aldi baterako gozamenaren balioa ondasunen balioarekiko proportzionala izango da, urtebeteko aldi bakoitzeko 100eko 2, ehuneko 70 gaingitu gabe.

b) Biziarteko usufruktuetan, balioa ondasunen balio osoaren 100eko 70 dela zenbatetsiko da, gozamendunak 20 urte baino gutxiago dituenetan eta, adinak gora egin ahala, beste urte bakoitzeko 100eko 1 gutxituko da, balio osoaren 100eko 10eko mugarekin.

c) Pertsona juridiko baten alde eratutako usufruktua, 30 urtetik gorako edo zehaztu gabeko eperako ezarri bada, zergei dagokienez, suntsiarazteko baldintzari lotutako jabetza osoaren eskualdatzea dela ulertuko da.

d) Aurretik eratutako gozamen-eskubide baten eskualdaketa, aurreko arauak jarraiki eratu zen egunean esleitutako ehuneko bera aplikatuko da.

e) Jabetza soilaren eskubidearen balioari dagokionez, gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren arteko aldearen arabera zenbatuko da. Era berean, aldi baterakoak diren biziarteko usufruktuetan, jabetza soilaren baloratzeko, aurreko lehenengo zenbakiko arauetatik balio txikiena ematen diona ezarriko da.

f) Erabiltzeko eta bizitzeko eskubide errealean balioa kalkulatzeko, ondasunen balioaren 100eko 75 aplikatuko da. On-

terminará, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 2 siguiente, multiplicando el valor del terreno en el momento del devengo, calculado conforme a lo establecido en el artículo 8 de esta ordenanza, por el coeficiente que corresponda, establecido en el anexo I.

